



---

## BERGARAKO UDALA

**Zabalotegi aretoko kultur ekintzetarako eta udalak antolatutako beste kultur ekitaldi eta jaialdietarako laguntzailearen lanpostua, barne promozioan , betetzeko deialdia arautuko duten oinarriak**

---

### **1.- Deialdiaren xedea**

Oinarrien xedea da Zabalotegi aretoko kultur ekintzetarako eta udalak antolatutako beste kultur ekitaldi eta jaialdietarako laguntzailearen lanpostua barne promozioan betetzeko aukeratze-prozesua arautzea.

Lanpostua, Enplegatu Publikoaren Estatutuak jasotako sailkapen-taldee jarraituz, C sailkapen-mailan, C2 azpitaldean sailkatuta dago, eta 7. mailari dagokion soldata-maila du, duen urteko lan-jardunaren proportzioa aplikatuta. Lanpostua baloratu gabe dago, baina balorazioaren emaitza kontratazioaren lehen egunetik aplikatuko da.

Halaber, 2. hizkuntza-eskakizuna du, derrigorrezkoa.

Urteko lan-jarduna partziala da, Udalak langileen lan-hitzarmenean onartuta duenaren % 73koa, eta lan-jardun hau premien arabera gehitu ahal izango du Udalak. Lana astelehenetik igandera eta jaiegunetan egingo du.

Lan-jarduna aldagarria da, urtean konputatzekoa; horregatik, lan-egutegia eta lan-ordutegia Zabalotegi Kultura Aretoko programazioari eta kultura eta jaietako programazioari lotuko zaizkio; gehienetan asteburuetan eta gau eta jaiegunei dagokien ordutegian eta egutegian egin beharko du lan.

### **2.- Betekizunak**

Lanpostuaren eginkizunak honako hauek dira:

- a. **Zabalotegi Kultura Aretoran:** ikuskizunen muntaketako arduradunei lagundu eta takila, atezaintza eta mantentze lanak egin.
- b. **Jai-ekintzetan:** muntatzea, zaintzea eta hainbat lan. Kontratututako taldeei eta bestelakoei ere harrera egin eta ekitaldien jarraipen eta balorazioa egin eskatzen zaion guztietan
- c. **Kultura-ekintzetan:** lagundu hura zabaltzen, kartelak jartzen eta kentzen, udalak antolatutako ekintzak iragartzen duen materiala etxez etxe banatzea etab. Udalak antolatutako ekitaldiak direla-eta, kultur talde eta bestelakoei harrera egin eta ekitaldien jarraipen eta balorazioa egin eskatzen zaion guztietan.
- d. Kultur eta kirol eraikinak ireki, itxi, prestatu eta zaindu.
- e. Musika-tresneria muntatu, desmuntatu, jarri eta kontrolatu, eta edozein kultur ikuskizun eta emanaldi aurrera eramateko beharrezkoa denean materiala garraiatu. Erabiltzen dituzten makineria eta tresnak zaindu.
- f. **Aroztegi aretoan:** antolatzen diren erakusketen muntatze eta desmuntatze lanak egin eskatzen zaionean edo/eta zaintza-lanak ere, eskatuko balitzaio.



- g. Obra eta Zerbitzuetako lantaldeei lagundu, hala behar denean.
- h. Udal atezainari lagundu eta beste udal zerbitzu batzuetako langileei lagundu.
- i. Kultura- eta jai-ekintzetan erabiltzaile eta ikusleen segurtasuna zaindu.
- j. Udal eraikuntzetako atezaintza-lanak egitea, beharrezkoa denean.
- k. Udalak antolatutako edo udalak lagundutako jai edo kultura ekintzetan argindarraren premia dagoenean, konexioa egin eta kendu esandako orduetan .
- l. Larrialdietako planaren arabera adjudikatutako lanak egitea.
- m. Eta, oro har, bere kategorian haren arduradun hierarkikoak eskatzen dizkion egiteko guztiak.

### **3.- Izangaiek bete beharrekoak**

Onartuak izateko eta, hala badagokie, neurketan parte hartzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiek:

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.
- b) Parte hartu ahal izango du, era berean, Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren herritarren ezkontideak, betiere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak ere, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, eta adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.
- c) Era berean, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan bizi eta aurreko paragrafoetan sartu gabe dauden atzeritarrek. Hauek aukeratuak izango balira, kontratuaren objektu den jarduera burutzeko administrazioaren baimena dutela probatu beharko dute, aipatutako kontratua egin baino lehen.
- d) 16 urte beteta izatea.
- e) Eskola Graduatua, LH-I edo erdi mailako espezialista edo pareko mailakoa den tituluaren jabe izatea.
- f) Titulazioak atzerrikoak badira, haien homologazioaren egiaztatzea beharko da.
- g) Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.
- h) Diziplinazko prozeduraren bidez Administrazio Publikoetako erakundeen zerbitzuetik bereizitakoa ez izatea, eta administrazio publikoan jarduteko gaitasunaz gabeturik ez egotea.
- i) 2. Hizkuntza Eskakizuna, derrigorrezkoa.
- j) B motako gida-baimena indarrean izatea.
- k) Bergarako udaleko E sailkapen taldeko lanpostu batean langile finkoa izatea, gutxienez bi urteko antzintasunarekin.

Oinarri honetan zerrendatutako baldintzak eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean beteta egon beharko dira, eta plaza eskuratu bitartean mantendu. i) azpiatalean ezartzen den baldintza bere unean egiaztatu beharko da.



#### **4.- Eskabideak**

Eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Eredua Bergarako Udaleko Erregistroaren Bulegoan emango dute, eta oinarri hauei erantsirik doa.

Lehiaketa-oposizioan parte hartzeko eskabideak Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta ondoko baldintza hauek bete beharko dira atzera bota ez izateko:

a) Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiak, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola.

b) Eskabidearekin batera, ondoko agiriok erantsiko dituzte:

- NAN agiriaren fotokopia.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.
- Hala badagokio, hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko tituluen edota egiaztagirien fotokopia.
- Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak, lehiaketaren fasean baloratuak izateko.

Laneko esperientzia egiaztatu beharko da lan egindako Enpresek edo Administrazioek egindako ziurtagirien bidez, bertan kontratuaren iraupena eta lanaren eginkizunak zehaztuz. Esparru pribatuko esperientzia egiaztatzeko, gainera, Gizarte Segurantzak luzatutako "laneko bizitza" edo kotizatu izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

Eskabidean Bergarako Udalean egindako zerbitzuak eta laneko esperientzia adierazi baditu, ez da agiri bidez egiaztatu beharrik izango, eta izangai bakoitzaren espedientean azaltzen diren datuen arabera baloratuko dira.

Prestakuntza osagarriari buruzko merezimendua egiaztatzeko aurkeztuko duen agirian, haren iraupena zehaztu beharko du. Horrela egin ezean, Epaimahaiaren esku geratuko da merezimendu hori baloratzea ala ez.

c) Instantzian adierazten diren merituak zerrendatu eta zenbatu egingo dira eta instantziarekin zenbaki bakoitzari dagozkion agiri(k) lagunduko ditu ZENBATUTA ere. Merituen agiriek eramango duten zenbakia egiaztatzen duten merituaren zenbaki berdina izango da eta agiri bakoitzak beheko aldean eskuinean eskuz idatzita eta izangaiaren sinadurarekin joango da. Agiri denak josita entregatuko dira eta instantziari lagunduko diote.

d) Izangaiak eskabideetan adierazi beharko dute oposizio-aldiko ariketak Erkidego Autonomoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten.

Eskabideak, behar bezala beteta, Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dituzte, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasi eta hurrengo 20 egun naturaleko epearen barruan.

Eskabideak, era berean, 30/1992 Legearen (*azaroaren 26ko Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen*) 38.4 artikuluan adierazitako Administrazio Publikoetako erregistroetan ere aurkeztu ahal dira. Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta, eskabideak aurkezteko epearen barruan, dagokion funtzionarioak data eta zigilua jarrita eduki beharko dute. Izan ditzaketen egitatezko akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta.



## **5.- Izangaiak onartzea**

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak Bergarako Udaleko iragarki-taulan argitaratu eta jarriko dira ikusgai. Udalak 10 egun naturaleko epea emango du erreklamazioak egiteko, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 71. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Behin-behineko zerrendak, besterik gabe, behin betikotzat joko dira erreklamaziorik ez badago. Halakorik badago, berriz, beste ebazpen baten bidez izango dira onartuak edo baztertuak. Ebazpen horren bidez, behin betiko zerrendak onetsiko ditu Udalak, eta adierazitako moduan argitaratuko ditu.

Azken erabaki horren aurka administrazioarekiko auzien errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietarako Salan; eta horretarako epea bi hilabetekoa izango da, onartuen eta baztertuen zerrenda argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Hori, ordea, ez da eragozpen izango, inork bidezkotzat jotzen badu, beste edozein errekurtsu aurkez dezan.

Aldez aurretik, eta hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean.

## **6.- Epaimahaia**

**6.1. Osaera:** Deituriko hautaketa-prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondokoak kontuan izanda eratuko da: Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 60. artikuluan, ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 8/1989 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa. Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta Alkate-Lehendakariak erabakiko dituen kideek osatuko dute eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari batek eta langileen ordezkariak izendatutako batek hartuko dute parte epaimahaian. Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen-zerrenda onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkatetza-lehendakaritzak izendatutakoan argitaratuko da.

Udlean presentzia duten alderdi politikoaren ordezkariak parte har dezakete begirale moduan.

**6.2. Espezialitatea:** Epaimahaiaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto-eskubidea duten kide guzti-guztiek izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza-arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

**6.3. Abstentzia eta errefusatzea.** Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkatetza-lehendakaritzari jakinaraziko diote Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 28. artikuluan oharmandako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiak mahaikideak ezetsi ditzakete aipatutako legearen 29. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

**6.4. Aholkulariak:** Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

**6.5. Eraketa eta lan egitaraua:** Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze-ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezkari gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze-prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzeko neurri guztiak hartuko dira.



### 6.6. Jarduketa-prozedura:

a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezin osatu ahal izango da eta jardun ere ez, titularretako edo ordezkari diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude, idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto-berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik. Idazkariak hitza baino ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Epaimahaiak ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere lanpostua beteko dela ziurtatzeko xedez, hautatutako izangaiak behin betiko kontratua sinatu baino lehenago uko egiten badu, proposaturiko izangaiaren ondorengo izangaiak osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiari.

d) Izangai batek ere gaudituko ez balitu baztertzailerak diren proba guztiak, lanpostua bete gabe geratuko da.

Ariketak epaituko dituen Epaimahaia kide titularrez eta ordezkoez osaturik egongo da, eta horien izendapena argitaratu emango da Udaletxeko iragarki-taulan.

### **7.- Gaitasunaren faseko ariketak**

Begarako Udaleko iragarki-taulan argitaratuko da lehenengo ariketa egiteko deialdia, eta han adieraziko da azterketa zein egun, ordu eta tokitan egingo den. Ondorengo deialdiak Epaimahaiak iragarriko ditu aditzera emateko egoki deritzon moduan.

Gaitasunaren fasean ondoko ariketa hauek egingo dira:

#### **—Lehen ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzailerak.**

1. Proba teorikoa. I. Eranskinean jasotako gaiekin edo/eta lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten galderei erantzun beharko zaie. Epaimahaiak erabakiko du izangaiek erantzun beharrezkoa test modukoa izango den edo ez, eta nola puntuatuko den.

Proba honetan, gehienez ere, **10 puntu** lortu ahal izango dira. Proba hau gaudituko ahal izateko derrigorrezkoa izango da puntuazioaren % 50 ateratzea.

2. Proba praktikoa: Lanpostuaren eginkizunekin zerikusia du(t)en proba(k) egin beharko dituzte.

Proba honetan, gehienez ere, **20 puntu** lortu ahal izango dira, eta proba hau gaudituko ahal izateko derrigorrezkoa izango da 13 puntu ateratzea.

#### **— Bigarren ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzailerak.**

Lanpostuaren profilari egokitzen den jakiteko ariketa/k egin beharko da/dira: test psikoteknikoek, elkarrizketak... eta abarrek osatu ahal izango dute ariketa hau. Epaimahaiak erabakiko du zelakoak eta bakoitzaren puntuazioa.



Ariketa honek gehienez ere **10 puntu** izango ditu. Ariketa hau gainditu ahal izateko derrigorrezkoa izango da puntuazioaren % 50 ateratzea.

### **— Hirugarren ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzailea.**

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko frogak egingo dira. Ezaguera hau egiaztatu ahal izango da Epaimahaiak proposaturiko idatzizko eta ahozko proben bitartez. "Gai" edo "ez-gai" kalifikatuko da.

Ez dute euskarako azterketa egin beharrik izango euskara-maila egiaztatzeko azterketak egin baino lehen Epaimahaiari 2. hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiria aurkezten diotenenk.

2. hizkuntza-eskakizuna izatea honela ziurtatu ahalko da:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako ziurtagiria, 2. hizkuntza-eskakizuna edo goragoko bat egiaztatu izana frogatzen duena.
- Baliokide diren beste ziurtagiriak, betiere euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiriaren arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeko apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuak jasotakoaren arabera..

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak Bergarako udalerrian edota HAEEK horretarako zehaztutako beste edozein tokitan egin ahalko dira. Nolanahi ere, proba horiek egitearen ondorioz hautagaiari gertatzen zaizkiokeen joan-etorriko gastuak, mantenukoak, etab. beraren kontura izango dira.

### **8.- Merezimenduen fasea.**

Epaimahaiak ondoko merezimendu hauek balioztatuko ditu, baldin eta, laugarren oinarriko b) atalean xedatutakoaren arabera, eskabidean adieraziak eta agiri bidez egiaztatuak izan badira, eta betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan hartuz:

—Bete behar den lanpostuaren funtzioekin Bergarako udalean egindako lana: gehienez ere **10 puntu** arte, hileko 0,15 puntu.

—Bete behar den lanpostuaren funtzio batzuekin Bergarako udalean edo Bergarako udaletik kanpo egindako beste lana : gehienez ere **2 puntu** arte, hileko 0,05 puntu.

Merezimendu horiek, enpresa-ziurtagiriaren edo zerbitzuak bete diren Administrazioak luzatutako agiriaren bitartez eta Gizarte Segurantzak luzatutako laneko bizitzaren agiriarekin lagunduz egiaztatu beharko dira. Egiaztagiritan, betetako funtzioak zehaztu beharko dira.

—Formazio osagarria: Lanpostuaren eginkizun eta ardurei aurre egiteko lagungarri dela ulertzen den formazio osagarria baloratuko da, gehienez ere **6 puntu** arte.

Ikastaroek gutxienez 30 orduko iraupena izan beharko dute kontuan hartzeko. 30 ordukoari 0,10 puntu emango zaio, eta hortik gorakoak proportzionalki puntuatuko dira. Horren guztiaren eraginetarako, hauek baloratuko dira:

1.-Laneko Arriskuen Prebentziorako formazioa izatea, 3 punturekin.

2.- Kultura ekintza eta ikuskizunen antolaketa, ikuskizun eta kultur aretoen kudeaketa eta segurtasuna, soinu eta argiztapen sistemak eta antzeko arloetako formazio-ekintzak, gehienez ere 5 punturekin.

3.- Herritarren arretaren inguruko formazioa izatea, 3 punturekin.

4.-Telekomunikazioekin edo soinu edo/eta argien instalazio ekipoen mantentze-lanekin zerikusia duen Erdi Mailako Lanbide Heziketari (Formación Profesional de Grado Medio)



dagokion titulua izatea 3 punturekin, eta arlo berean Goi mailakoa izatea 5 punturekin baloratuko da. Goi mailakoa duenari ez zaio baloratuko erdi mailakoa. Bestetik, titulu hauek atal honetan bakarrik baloratuko dira; formazio osagarri edo ikastaroen atalean ez dira baloratuko.

Erakunde ofizialek edo haiek homologatutakoek emandako ikastaro eta formazioa izango dira, eta bakoitzaren formazio-ekintzen iraupena, ordutan, jaso beharko dute baloratuak izateko. Iraupena jasotzen ez dutenak ez dira kontuan izango.

### **9.- Gaitasunaren fasea garatzeko era**

Epaimahaiak, hala erabakiz gero, alda dezake zazpigarren oinarrian adierazitako ariketen hurrenkeran, eta egunean proba bakar bat egitea ere erabaki dezake.

Epaimahaiak ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak, baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere, hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

Gainditu beharreko ariketa bakoitza burutu ondoren, Epaimahaiaren erabakiz, iragarki-taulan emango da argitara ariketa gainditu dituzten izangaien zerrenda.

### **10.- Epaimahaiaren proposamena**

1. Lehiaketa-oposizioaren azken sailkapena bi fasetan lortutako puntuen batuketaren arabera egingo da, izangaien lehentasun-ordena zehaztuko duena, alegia.
2. Ariketen kalifikazioa eta merituen balorazioa amaitu ondoren, Epaimahaiak onartutako izangaien izenak emango ditu argitara, azken puntuazioaren ordenaren arabera. Azken puntuazio hori oposizioan eta lehiaketan ateratako puntuen batura izango da.
3. Puntuazioan berdinketa gertatuz gero, irizpide hauek erabiliko dira, emandako hurrenkeran:
  - a) Puntuazio altuena udalean egindako lanen atalean.
  - b) Puntuazio altuena ezagutza praktikoari dagokion proban.
4. Probak eta merituak kalifikatzeko lana amaitzen denean, Epaimahaiak onartu egingo du hautatutako izangaia.
5. Epaimahai Kalifikatzaileak Bergarako Udaleko Iragarki Taulan eta web-orrialdean argitaratuko du kontratazio-proposamena, eta Alkateari aurkeztuko dio, hautatua kontratatzeke proposamenarekin batera.

### **11. Deialdiko betebeharrak kreditatzea.**

1. Onartu eta kontrataziorako proposatutako izangaiak lehiaketa-oposizioan parte hartzeko
3. oinarrian eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak aurkeztu beharko ditu aipatutako argitalpena egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 15 laneguneko epean.





2. Aipatutako epean, eta ezinbesteko arrazoirik ez bada, izangaiak dokumentazio hori aurkeztu ez badu edo eskatutako baldintzak egiaztatu ez baditu, kontratatze eskubide guztiak galduko ditu eta baliorik gabe geratuko dira ekintza guztiak, hasierako eskaeran egindako faltsutasunagatik izan dezakeen erantzukizunaren kalterik gabe. Kasu horretan, organo eskudunak izendapen-proposamen berria egingo du ariketa baztertzailerak gairitu dituzten artetik eta zerrendan azken puntuazio-hurrenkeran hurrengoak agertzen diren alde, deitutako lanpostu-kopurua bete arte.

## **12.- Kontratazioa-Praktikaldia**

Alkate-udalburuak epaimahaiak proposaturiko izangaiari kontratu finkoa egingo dio, legeak aurreikusitako frogaldia izango duelarik, hau da, bi hilabetekoa.

Kontratua egin aurretik enpresa-medikuaren ikuskapena pasatu beharko du, bere osasun-egoera ona dela eta lanpostuaren eginkizunak betetzeko gai dela egiaztatzeko.

Frogaldi honek hautaketa-prozesuaren atal baten izaera izango du eta azken balorazioa gai/ez-gai izango da; udal Iragarki Taulan argitaratuko da.

Epe hori amaitu aurretik, dagokion arduradunak langileak egindako lanari buruzko txostena egingo du, eta erakutsi dituen gaitasunak hartuko ditu kontuan txosten horretan:

- lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta eraginkortasunaren zentzua, lanerako prestasuna eta ekimena, eta lanarekiko interesa.
- lan-taldera moldatzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan.

Behin behineko ezgaitasun-egoeragatik, amatasunagatik, aitatasunagatik eta adopzioa edo harreragatik lizentzia hartzeak frogaldiaren etenaldia suposatuko du, eta lanera bueltatzerakoan falta den frogaldiari dagokion epea berriz hasiko da zenbatzen.

## **13.- Dokumentazioa Itzultzea**

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiek, kontratatuko direnek eta lan-poltsarako izendatuko direnek izan ezik.

Hautaketa prozesua bukatu eta 3 hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du Udalak.

## **14.- Prozesuaren Argitalpenak**

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizioaldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) Bergarako Udaleko web-orrian ere argitaratuko dira ([www.bergara.net](http://www.bergara.net)).

Datu pertsonalen babeserako araudiari jarraituz, edozein izangai edo parte-hartzailek izango du bere datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatzeko eskubidea; horretarako eskaera aurkeztu beharko du helbide honetara bidalitako idatziaren bitartez: Bergarako Udala, San Martin de Agirre plaza 1, 20570 Bergara.





### **15. Gorabeherak**

Epaimahai kalifikatzailea eskuetsirik dago sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta lehiaketa-oposizioaren jarduera ona zaintzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan eta aplikazio osagarriko legedian xedatu ez diren kasuetarako.

### **16. Inpugnazioa.**

Interesdunek oinarri hauen aurka egin dezakete –inpugnatu–, indarrean dagoen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako epe eta moduan.



## I. ERANSKINA

1. Jendeari informazioa eta arreta ematea. Administrazioaren irudia. Komunikazioa, jendearentzako arreta moduan. Herritarren eta Administrazio Publikoaren arteko harremanari buruzko legezko araudia. Ekimenak, erreklamazioak, kexak, eskaerak. Telefono bidezko arreta.

2. Bilerak prestatzea. Orokortasunak. Aretoa erabiltzeko banaketa antolatzea. Audio-sistemak. Materialak.

3. Behe Tentsioaren Erregelamendu Elektronikoa, 842/2002 ERREGE DEKRETUA: Jarraibide teknikoak:

ITC-BT-51. AUTOMATIZAZIO-SISTEMEN, ENERGIAREN KUDEAKETA TEKNIKORAKO SISTEMEN ETA SEGURTASUN-SISTEMEN INSTALAZIOAK, ETXEBIZITZETAN ETA ERAIKINETAN.

ITC-BT-29. INSTALAZIO ELEKTRIKOAK, SUTE- EDO EZTANDA-ARRISKUA DUTEN LOKALETAN.

ITC-BT-33. OBRETARAKO INSTALAZIO BEHIN-BEHINEKOAK ETA ALDI BATERAKOAK.

ITC-BT-28. INSTALAZIOAK, JENDARTEA BILTZEN DEN LOKALETAN.

ITC-BT-03. BEHE-TENTSIORAKO BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEAK

4. Sarbide-kontrola. Zaindu eta kontrolatzeko egitekoak. Sarbide-kontrolako sistemak. Ilogailuaren erabilera. Arropa-zaintza eta kontsigna zerbitzuak.

5. Eraikinak eta lokalak zabaldu eta ixtea. Giltzak zaintzea. Instalazioak abian jartzea eta gelditzea.

6. Materiala eta altzariak lekuz aldatzea. Araudia. Zamak eskuz manipulatzeko.

7. Erreproduzitzeko makinak, koadernatzeko makinak eta antzeko beste batzuk erabiltzea. Bulegoko lanak.

8. Oinarrizko matxurak eta konponketak zentroetako zerbitzuetan. Larrialdietako konponketak. Igeltserotzako oinarrizko matxurak eta konponketak. Iturgintza mekanikoko eta errementaritzako oinarrizko matxurak eta konponketak. Pinturako oinarrizko matxurak eta konponketak. Zurgintzako eta sarrailagintzako oinarrizko matxurak eta konponketak. Elektrizitateko oinarrizko matxurak eta konponketak. Lorazaintzako ekintzak

9. Erremintak garbitzea, mantentzea eta ordenatzea. Igeltserotzako erremintak. Pintura tresnak. Zurgintzako erremintak.

10. Eszenatokiko makineria: jasotze-sistemak.

11. Eszenatokiko argiteria-tresnak. Oinarrizko kontzeptu eta elementuak ezagutzea.

12. Eszenatokiko argiteria-tresnak muntatzea. Oinarrizko kontzeptu eta elementuak ezagutzea.

13. Dekoratu-motak eta horien ezaugarriak.

14. Mikrofonoak: motak eta ezaugarriak.



15. Bozgorailuak: motak eta ezaugarriak.
16. Audio-nahasgailuak. oinarrizko kontzeptu eta elementuak ezagutzea.
17. Soinu-sistemak: formatu estereofonikoa eta giro-soinua. Oinarrizko kontzeptu eta elementuak ezagutzea.
18. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea. Babesa izateko eskubidea. Informazioa, kontsulta eta langileen parte-hartzea. Langileen prestakuntza. Larrialdietako neurriak. Osasun-zaintza. Arrisku jakin batzuen aurrean sentibera diren langileen babesa. Amatasunaren babesa. Langileen betebeharrak. Lan lekuetan segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak. Xedapen orokorrak: xedea eta definizioak. Enpresariaren betebeharrak: ordenatzea, garbitzea eta mantentzea. Seinaleak, ingurumen-baldintzak. Higiene-zerbitzuak eta atsedeen-lekuak.
19. Larrialdietako plana.
20. Ikuskizun Publikoen eta Jolas Jardueren 4/95 Legea. Aspektu orokorrak.
21. Bergarako historia. Monumentuen ondarea. Udalerriko kale-izendegia.
22. Bergarako eta haren auzoetako tradizioak eta jai nagusiak.
23. Bergarako kultura-azpiegiturak.
24. Intimitatea izateko eskubide konstituzionala. 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa:II. eta III. tituluak.
25. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua (7/2007 Legea, apirilaren 12koa).
  - II. titulua. Administrazio publikoen zerbitzupeko langile-motak.
  - III. tituluko I. kapitulua. Enplegatu publikoen eskubideak.
  - III. tituluko VI. kapitulua. Enplegatu publikoen betebeharrak. Jokaera-kodea.
  - VII. titulua. Diziplina-araubidea.
26. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri aginteen jarduna gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorrak.
27. Bergarako Udaleko langileen lan-hitzarmena.



---

## AYUNTAMIENTO DE BERGARA

### **Bases reguladoras de la convocatoria para la provisión, mediante promoción interna, de un puesto de ayudante para las actividades culturales del salón Zabalotegi y para otros actos culturales y festivos organizados por el ayuntamiento**

---

#### **1.- Objeto de la convocatoria**

Es objeto de estas bases regular el proceso de selección para la provisión, mediante promoción interna, de un puesto de ayudante para las actividades culturales del salón Zabalotegi y para otros actos culturales y festivos organizados por el ayuntamiento.

El puesto se encuadra, de conformidad con lo establecido en el Estatuto del Empleado Público, en el grupo de clasificación C, subgrupo C2, con un nivel retributivo 7, aplicándosele la proporción de su jornada laboral anual. La valoración del puesto, aún pendiente de establecer, se aplicará a partir del primer día de contratación.

Asimismo, tiene asignado el perfil lingüístico 2, con carácter preceptivo.

La jornada laboral anual es parcial, del 73 % de la jornada aprobada en el convenio laboral del personal municipal, y podrá ser ampliada por el Ayuntamiento en función de las necesidades existentes. Trabaja de lunes a domingo, así como en días festivos.

La jornada será variable y de cómputo anual. Por ello, el calendario y el horario de trabajo se acomodarán a la programación del salón cultural Zabalotegi y a la programación cultural y festiva; en general se deberá trabajar en fines de semana, en horario nocturno y en calendario festivo.

#### **2.- Funciones del puesto**

Las funciones del puesto son:

- a) **En el salón cultural Zabalotegi:** Colaborar con las personas responsables del montaje de los espectáculos y realizar las labores de taquilla, portería y mantenimiento.
- b) **En actos festivos:** trabajos de montaje, vigilancia y otros. Recibir a los grupos contratados y demás, y realizar el seguimiento y valoración de los actos siempre que se le solicite.
- c) **En actos culturales:** colaborar en su difusión, colocación y retirada de carteles, repartir a domicilio el material publicitario de las actividades organizadas por el ayuntamiento, etc. En actos organizados por el ayuntamiento, recibir a los grupos culturales o demás, y realizar el seguimiento y valoración de los actos siempre que se le solicite.
- d) Apertura, cierre, preparación y vigilancia de instalaciones culturales y deportivas.
- e) Montaje, desmontaje, instalación y control del equipo de música, así como transporte del material cuando sea necesario para llevar adelante la actuación. Cuidado de la maquinaria y herramientas que se utilicen.



- f) **En la sala Aroztegi:** Realizar tareas de montaje y desmontaje de las exposiciones organizadas, cuando así se le solicite, e incluso tareas de vigilancia en su caso.
- g) Colaboración con las brigadas de Obras y Servicios cuando sea necesario.
- h) Colaboración con el conserje municipal y con el personal de otros servicios municipales.
- i) Vigilancia de la seguridad de usuarios/as y espectadores/as en actos culturales y festivos.
- j) Realizar tareas de conserjería en instalaciones municipales, cuando sea preciso.
- k) En los actos festivos o culturales organizados o participados por el ayuntamiento, si se precisa corriente eléctrica, conectarla y desconectarla en el horario que se le establezca.
- l) Realizar las tareas asignadas de acuerdo con el Plan de Emergencias.
- m) Y, en general, todas aquellas funciones que le sean encomendadas por su superior/a jerárquico/a dentro de su categoría.

### **3.- Requisitos de las personas aspirantes**

Las personas aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos para su admisión y, en su caso, participación en el concurso:

- a) Tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado español, le sea de aplicación la libre circulación de personas trabajadoras.
- b) También podrán participar el cónyuge de las personas nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separada de derecho, así como sus descendientes y los/las de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean estos/as descendientes menores de veintiún (21) años o mayores de dicha edad que vivan a sus expensas.
- c) Asimismo, podrán tomar parte las personas extranjeras no incluidas en los párrafos anteriores residentes en el estado español. En caso de que resulten seleccionadas, y previamente a la firma del contrato, deberán acreditar que cuentan con autorización administrativa para ejercer la actividad objeto de dicho contrato.
- d) Tener cumplidos 16 años
- e) Estar en posesión de la titulación de Graduado Escolar, FP-I o especialista de grado medio o nivel equivalente.
- f) En caso de titulaciones extranjeras, se deberá aportar el certificado de su homologación.
- g) No tener ningún impedimento físico, psíquico ni cualquier otro que impida la normal prestación de las funciones propias del puesto de trabajo.
- h) No haber sido separado/a del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas mediante expediente disciplinario, ni hallarse inhabilitado/a para el ejercicio de funciones públicas.
